

## **Arabako Foru Aldundiak eta Kantauriko Urkidetza ur partzuergoak ur andel berria eraikiko dute Artziniegan**

*Egungo andela eraisteko eta berria eraikitzekeo hitzarmena izenpetuko dute, zeinak 814.000 euroko aurrekontua izango baitu*

**Gasteiz, 2021eko maiatzaren 11.** Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluak 407.000 euroko partida bat onartu du gaur, Artziniegan ur andela eraikitzekeo. Andelak 1.800 pertsona hornituko ditu urez eta egungoa dagoen toki berean egongo da kokatuta.

Foru aldundiak obraren aurrekontuaren % 50 ordainduko du, eta Ingurumen eta Hirigintza Sailak hitzarmena izenpetuko du laster Kantauriko Urkidetza ur partzuergoarekin, hark gainerako % 50a finantza dezan, eta Artziniegako Udalarekin, egun dagoen ur edangarriko andela eraisteko eta berria eraikitzekeo. Obrak 2022an amaitzea dago aurreikusita.

Biltegi berriak azken belaunaldiko teknologia izango du edateko ura tratatzeko instalaziora ur gordina sartzeko sistemetarako, eta egungoa ordeztuko du, hausteko arriskua baitago eta, 5.000 metro kubikoko edukiera izan arren, edukieraren % 30 soilik erabiltzen baita.

1.600 metro kubikoko edukiera izango duen andel berria diseinatzean, kontuan hartu dira biztanleriaren eta inguruko herrien benetako beharrak, eta egungoa dagoen tokian kokatuko dutenez, ez dute eremu berri bat okupatu beharko, ez eta lur kopuru handiak mugitu beharko ere.

Lanak urtearen amaieran hastea dago aurreikusita, eta andela aldatzeaz gain, hura dagoen zelaigunera iristeko sarbidea hobetuko dute eta zuhaitz ugari landatuko dituzte, besteak beste, arteak eta erkametzak, bai eta elorriak, zuhandorrek eta bestelako zuhaixkak ere.

## **Foru Aldundiak 634.000 euro inbertituko ditu Arabako errepideetako segurtasuna hobetzeko**

*Zeharbideetan eta istripu ugariko errepide tartetan esku hartuko du*

Arabako Foru Aldundiak 634.000 euro inbertituko ditu, Arabako errepideen segurtasuna hobetzeko. Ekintza programa horrek lehentasuna emango die hiri zeharbideei eta istripu ugariko errepide tarteei.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du bide segurtasuneko prebentzio eta arintze neurrien kontratuaren lizitazioa, zeina esku hartze horien oinarria baita, 633.962 euroan eta bederatzi hilabeteko gauzatze epearekin. Esku hartzeak aurtengo urtearen bigarren seihilekoan eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko dira.

Programa horren bidez finantzatutako proiektuek abiapuntu hartzen dituzte udalek, administrazio batzarrek eta herritarrek egindako proposamenak, foru erakundeko bide segurtasuneko teknikarien txostenak eta foru errepideen sareko 2016-2020ko istripuei buruzko azterketaren ondorioak.

Kontratu horren bidez, Foru Aldundiak ekintzak egingo ditu Arabako hainbat herritako zeharbideetan eta hiri barruko bide tartetan, ibilgailuak igarotzen diren abiadura gutxitzeko. Kasuen arabera, seinaleztatze horizontala eta bertikala indartzea eta zirkulazioa baretzeko neurriak hartzea izango da ekintza horien muina.

Halaber, euspen sistema narriatuak ordeztuko dira; hesi berriak jarriko dira arriskuko zonetan, motorzaleentzat egokituak; eta tarte jakin batzuetan txirrindulariak ibili daitezkeela adierazteko seinale gehiago jarriko da, besteak beste.

Esku hartzeetarako programak kontuan hartuko ditu, halaber, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak aldizka Arabako errepideetako istripuez egiten duen azterlanaren ondorioak. Azterlan horrek istripu ugariko bide tartek zehazten ditu, eta haietan segurtasuna hobetzeko ekintzak planteatzen ditu. Horiek ere kontratu horren bidez finantzatuko dira.

Azkenik, segurtasun programak honako hauek ere jasotzen ditu: faunari buruzko seinale bereziak ipintzea ehiza espezieekin istripu ugari izaten diren bide tartetan; fauna uxatu eta erakartzen duten produktuak erabiltzea animaliak gurutzagune seguruetara bideratzeko (fauna pasabideak), eta horrela ez daitezen sartu errepidera oraingo gurutzaguneetan; eta N-240 errepidearen perimetroa ixten jarraitzea.

## **51 toki erakundek jasoko dituzte bideak mantentzeko 450.000 euroak**

Gobernu Kontseiluak ebatzi du zerbitzua kontratatzeko prozesua eta Arabako landa bideak mantentzeko laguntzen deialdia. Laguntza Arabako 51 toki-erakundetara iritsiko da. Foru Aldundiak 450.000 euro bideratuko ditu egitura-elementuak garbitu eta lehengoratzeko, errodadura-eremua egokitzeko eta landa-finkei edo nekazaritza-ustiategiei zerbitzua emateko erabilerara egokitzeko beharrezkoak diren lanetarako.

"Gauzazko laguntza" bat da, Nekazaritza Sailaren kontura landa-bideak mantentzeko zerbitzu bat ematea, erakunde titularrari eginkizun hori betetzeko diru-laguntza eman beharrean. Beraz, Arabako Foru Aldundia arduratuko da toki-erakundeen eta udalen titulartasuneko landa-bideetako mantentze- eta kontserbazio-lanez, foru-erakundeak % 100ean finantzatuta.

Kontratuaren barruan 3 lote ezarri ziren, jarduketa-eremu desberdinekin. Kasu honetan, hiru eremutan izango dute onura jarduerak: 95.169 euro Arabako Errioxako Kuadrillako zenbait bidetarako izango dira, 166.840 Arabako Lautadako bide batzuetarako, eta 187.989 euro Añanako Kuadrillako beste hainbesterako.

## **Foru Aldundiak 85.000 euroko laguntzak emango ditu fruta laboreak landatzeko**

Gobernu Kontseiluak gaur goizean onartu ditu lurraldean fruta-laboreak ezartzeko laguntzak. Diru laguntza hori, proiektu pilotu egoki baten ondoren, 85.000 eurokoa izango da aurtengoa, labore iraunkor mota hori sustatzeko.

Arabak laborantzarako azalera zabala du, eta Euskadin nekazaritza-azalera handiena duen lurraldea da. Haren zatirik handiena urteko lehorreko laborantza estentsiboetarako erabiltzen da, batez ere zerealetarako (garia, garagarra eta oloa), mahastietarako eta labore estentsibo ureztatuetarako, hala nola erremolatxa eta patatarako. Beste lurralde mugakide batzuetan ez bezala, labore iraunkorrak ez dira ohikoak Araban, mahastiak izan ezik.

Hala ere, Arabako dibertsitate edafoklimatikoak, aldeko orografiarekin batera, fruta-labore jakin batzuk garatzeko lurralde aproposa egiten du. Sagarrondoa gure lurraldean antzina-antzinatik dagoen laborantza tradizionala da, eta gure kulturari, etxaldee eta baserriei tradizioz lotuta egon izanaren testigantzak askotarikoak eta ugariak dira.

Badira, halaber, beste fruta-labore batzuk, aurrekoa bezain garrantzitsuak izan ez arren eta jatorri-deiturarik edo lotutako kalitate-markarik izan ez arren, lurraldearentzat bereziki interesgarriak direnak nekazaritza-jarduera dibertsifikatzen eta mantentzen laguntzen dutelako, tokiko barietateak edo nekazaritza-biodibertsitatea kontserbatzen eta hobetzen laguntzen dutelako, paisaia kontserbatzen dutelako, etab. Intxaurrondoa edo olibondoa bezalako laboreak interesgarriak dira, eta zalantzarik gabe, aipatutako helburuak lortzen laguntzen dute.

Aukera horren aurrean, eta Arabako frutagintzak duen potentzialtasuna sakon ezagutzeko, Foru Aldundiak 2018an aurretiko azterlan bat egin zuen, Arabako sagarraren laborantzaren egungo egoera ebaluatzeko eta ezagutzeko, eta hori abiapuntua izan zen datozen urteetan gure lurraldean fruta-laborantza hori sustatzeko estrategia diseinatzeko.

Berrikuntza gisa, aurtengoa 10.000 euroko partida bat dago, zehazki, frutagintza arloko aholkularitza teknikorako, landaketei laguntzeko.

## **Alberto Amenabarrek zuzenduko ditu Arabako Foru Suhiltzaileak**

*Gobernu Kontseiluak izendapena eta Javier Carroren kargu uztea onartu ditu, berak hala eskatuta, karguan lau urte baino gehiago eman ostean.*

Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoak zuzendari-kudeatzaile berria du hemendik aurrera. Alberto Amenabar da, eta fase berri honetan jarriko da erakunde autonomoko agintarien aurrean. Erronka nagusia izango da plantilla finkatzea, dagoeneko deitutako LEP batekin eta egiteko zorian dagoen beste batekin.

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio izendapenari, Javier Carro kargutik ateratzea onartzen zuen bitartean. Orain arteko zuzendari-kudeatzaileak berak eskatuta amaitzen du bere lana erakundean, lau urte baino gehiago oso bihiak izan ondoren. Haren zuzendaritzapean, erakunde autonomoa ia zerotik gora egin du, eta lehen mailako Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua bihurtu da. Lau urte hauetan, lurraldeko zainketa intentsiboetako unitateek 24 orduko iraupena izan dute, Iruña Okan parke zentral berri bat eraiki da eta erakunde autonomoa ia 200 langilez hornitzeko balio izan duten Lan Eskaintza Publikoak egin dira.

Alberto Amenabar, Lanbide Berrien Euskal Zentroko Merkataritza Kudeaketako eta Marketineko tituluduna eta MBA Nazioarteko Masterra (EAE Business School Madrid), Shanghai University & Kean University New York, 2003tik Talleres Amenabar, S.A. enpresan hainbat kargu zituen, Arabako Foru Suhiltzaileen buruzagien aurrean jartzeko erronka onartu aurretik.

## **Arabako Foru Aldundiak Alderdi Popularrak proposatutako klima-aldaketari buruzko foru-arauaren proposamenaren aurkako irizpidea agertu du**

*Foru Gobernu Kontseiluaren arabera, proposamenak eskumenen injerentzia ekar lezake, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eskumena baita, Autonomia Estatutuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluak aurkako irizpena eman du gaur Arabako Popularrak batzarkide taldeak aurkeztutako klima aldaketaren, trantsizio energetikoaren eta karbonoan neutroa den ekonomiaren foru arau proposamena aintzat hartzeari buruz.

Gobernu Kontseiluaren gaurko erabakiak adierazten du ekimenak, Arabako Popularrak batzarkide taldeak planteatzen duen moduan, eskumenen injerentzia ekar dezakeela; izan ere, ingurumenaren eta energia araubidearen arloan legeak garatzeko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagozkie.

Foru Gobernu Kontseiluak ez du uste beharrezkoa denik planteatutako neurrien kalitatea baloratzea, “are gutxiago Estatuan klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko lege proiektu bat izapidetze fase aurreratuan egonik, eta Euskadin trantsizio ekologikoari eta klima aldaketari buruzko lege proiektu bat izapidetzea aurreikusita dagoela kontuan hartuta”.

Gobernu Kontseiluaren erabakiak adierazten du Foru Gobernuak konpromiso irmoa duela, Alderdi Popularraren ekimenean aipatutakoarekin bat etorriz, klima aldaketa arintzeko, horretara egokitzeko eta karbono gutxiko eredu sozioekonomiko eta energetiko bat bultzatzeko ekintzak garatzeko.

“Testuinguru horretan –dio Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiak– kokatzen da Klima Araba 2050 Estrategia, zeina Arabako udalerriekin eta kuadrillekin koordinatuta eta lurraldeko gizarte eta ekonomia sarearen parte hartzearekin gauzatuko baita, eta Arabako berezitasunetara egokitutako kudeaketa eta gobernantza tresna berritzailea izango da”.